

Iran bidegurutzean eta gurutzebidean

Azken hilabeteetan sarri ikusi dugu Iran egunkarietan, telebis-tan. Grebak, manifestapenak, gartzelak eta polizi komisariak asaltatuak; armada tiroka kalean, hilak ehundaka, apika milaka. Sha-k bere familiarekin hanka egin du «oporralditxo» bat hartzera. Ayatollah Khomeinik, Txiiismoaren lider erlijioso-politikoak, aldiz, herbestetik etxeratu nahi du. Mendebaleko tekniko eta negozianteek arrapaladan ihesari eman diote. Adibidez, espainiarrak 800 bat ziren; gaur 60 ozta ozta daude. Iran leher zorian dagoen bonba bailitzen... Iran-ek, zimentarriak dardaratu zaizkion herria dirudi. Zergatik hori?

Handik eta hemendik zerbait badakigu: 1.650.000 Km² (Frantzia, Italia, Espainia eta Ingalaterra batuta adina) dituen herri honetan 30 milioi biztanle besterik ez dela bizi. Mosaiko etniko nahasia dela. Sha-ren errejimenak diktadura eta errepresio politiko beldurgarria erabili duela. Konpainia multinazionalak —frantses, ingeles, italiar eta amerikar, batez ere— izaina bezala petrolio-a zurru-patzen ari zaizkiola. Sha-k nazioa modernizatzeko eginahalak egin ditu. Administrazioa, polizia, militarrek, ustelkeriaz josita daudela. Sha-ren familiak urte gutxitan aberastasun kontaezinak bereganatu ditu. Fanatismo erlijiosoa, ezjakintasuna, miseria, petrolioari esker aberastu den minoria-aren eta ezergabe dagoen maioria-aren arteko klase-diferentzia, ikaragarriak direla... Hala ere guzti honek gehiegi esplikatzen ez ote duen susmoa duzu.

Atzera begiratzen duzu argitasun bila, eta hainbeste aipatzen ez diren datotaz jabetzen zara. Oraingo Sha-ren dinastia ez dela bategarri aitzinakoa, atzo goizekoa baino. 1925ean hartu zuen erregetza gaurko Sha-ren aitak, aurrena errepublika eraiki nahi izan, eta, batez ere oposizio erlijiosoarengatik, porrot egin ondoren. Nazioa modernizatzen saiatu zela: eskolak, ospitaleak, unibertsitatea, bide berriak, emakumearen promozioa eta askatasuna, etab. Erreforma honen sinbolo bezala, 1934ko urtezahar egunez, nazioari Pertsia izena kendu eta Iran jarri zion. «Anglo-Persian Oil Company»-ari bere pribilegioak kendu zizkiola. Baina guzti hori errepresioari, askatasun indibidualak kentzeari esker egin zuela. 1941. urtean rusoei eta ingleseki bere semearengan abdikatzera behartu zutela, neutraltasuna gordetzearen Hitler-ekin hautsi nahi izan ez zuelako.

Ez da hain ezaguna semeak agintea hartu orduko, aitaren errejimenaren kritika gogorra egin zuela. Aitaren lurrak banatu egin zituela laborarieren artean. Preso politikoei amnistia, eta errepresioan nabarmendutakoei gartzela eman ziela. Urte gutxiren buruan (1951-1965) bi lehen ministro hil direla Fedayan-i Islam (Islam-go gudarriak) sektako fanatikoren baten eskuz. Petrolioia nazionalizatu zuela, nahiz eta esplotazioa kanpoko konpainien atzaparretan gelditu. Lurraren erreforma egin zuela. Petrolioaren aberastasunaren handiagatik, industriarik ez duela ia batere. Kontsumorako produktuen lantegiak dira ia denak. Lehen altzairu-fabrika 1968an eraiki zuten Sobiet Batasunaren laguntzarekin. Baina bestetik demokrazia itxurazkoa izatera ere ez dela iritsi: Hauteskundeetarako soilik agertzen diren alderdi fantasmak, hauteskundeak trukatu (bi bider horregatixe 1960 eta 1961 urteetan hauteskundeak anulatu behar izan ziren). Ezkertiarrek ezezik (bereziKI Tudeh partidu marxistak) oposizio eskubitarrak ere errepresioa zer den badakiela. Ayatollah Khomeini-k ia 15 urte egin ditu herbestean. Alegia, honetaz jabetzen zara: lehenengo gerra mundialaren ondoko Iran-en historia petrolioaren lapurretaren historia dela.

Atzerago begiratuz gero, Pertsia, gaurko Iran, gudutoki aparta izan dela ikusten da. Etengabeko gerra egin du alboko herriekin (Sumerio, Akadio, Babiloniar, Asirioekin). Partoek, Greziarrek, Arabiarrek, Mongolek, Turkoek behin eta berriz aspiratu dute historian zehar. Baina menderatzaileen kulturak asimilatzeKO trebetasun aparta agertu du Iran-go herriak. Arabiarren eraginez eta indarrez, Iran Islam-era pasatzen denean, korronte minoritarioa (txiismoa) besarkatzea bultzatu zioten arrazoiak ez ziren denak teologikoak beharbada. Nortasun etnikoa gordetzeKO asmoa ere nabari daiteke hor.

Gaurko europarrak nekez sinets dezake, eta gutxiago ulertu, Islam erlijioak duen eragin politikoa. Teokrazia edo nomokrazian daude. Koran liburu sakratuan biltzen diren iritzi eta modelo politikoen, eta tradizioan sortu diren usadio, lege eta ohituren sakratutasunak agintzen du. Islam-ek ez du klerorik. Laikoa da. Baina textu sakratuen eta tradizioen interprete-teologo-errezatzaile-gidari-kontseilariek eragin handia dute. Oroki Khomeini-k, txiismoaren lider nagusiak, gidari erlijioso-politikoak, Sha-ren aurkako oposizioa nola kanalizatu eta kapitalizatu duen. Iran-go erlijio eta politikaren nahasketa hau ulertzeko, hainbat mendetan Europak ezagutu duen «régimen de cristiandad» delakoa gogoratu behar genuke. Gaur begien bistako zaigun egoera, sufrimendu, tirandura, eten, borroka eta denbora askoren fruitu da.

Iran-go herria bidegurutze eta apostu historikoaren aurrean dago. Urte gutxitarako daukan petrolioaren aberastasuna aprobeztatuz, ekonomia egitura modernizatu, iraultza soziala egin, Islam-en pisu teokratikoa kendu, erlijioa pentsamenduaren eta arrazoimenaren eragineria ireki (honek ez du esan nahi mendebaldu behar duenik, Iran-

go kultur tradizio aberatsaren haritik egin bait daiteke hori), teokraziak eta nomokraziak ahaztu (hots, erlijioa eta politika banatu, bakoitzari bere izena emanaz), ala islamismo eskubitar, fatalista, itxiaren hesietan gordeta jarrai, feudalismoaren egituretatik ateratzeko borondaterik gabe, barneko kontradikzioek lehertuko duten arte. Ezaguna da kristautasunak berak baino ere nekezago irentsi dezakeela marxismoa Islam-ek. Sozialismoa islamizatzerik izango ahal du?

Sha Reza Pahlevi bidali dute. Ez dirudi amerikarren erabateko babesik ducnik. Ayatollah Khomeini-rekin hitzegitera joan dira behintzat. Une honetan ez da erraza zer gertatuko den asmatzea: Khomeini-k Parisetik eskatzen duenez, errepublika islamikoa sortuko den, ala Iran-go armada, munduko modernoenetakoa, Shari leial izango zaion.

Baina ez errepublika ez monarkia da, berez, inolako interbidetik. Programa politiko orokorra behar da. Khomeini-k, adibidez, ez du antzekorik ezer agertu orain artean. Sha hankaz gora botatzearekin eta errepublikarekin ez litzateke, bada, besterik gabe, Iran-go herriaren gurutzebidea bukatuko. Nondik abiatuko ote bigurutzeko historiko honetan? ■ *Manolo Pagola.*

«Konstituzio Espainako»ren euskara negargarria

Dakigunez, bi argitalpen izan ditu euskaraz 1978ko Konstituzioak. Lehenengoa, krema kolorezko liburuxka batetan (600.000 aleko tirada), eta bigarrena 1978ko Abenduaren 29ko BOE-Gaceta de Madrid (núm. 3.116) delakoan. Zoritxarrez, bi aldaketa ekarri ditu bigarren honek. Konstituzioaren kontrakoak garenon ikusmira batetik diogu zoritxarrez, zeren eta lehenengoan pozez betetzen gintuen Disposapen Derogatzailerak honela bait zion: «Era berean derogaturik geratzen dira Konstituzio hontan ezartzen diren disposapen guztiak». Bigarren aldaketari, euskaldun bezala deritzogu zorigaitzoko: «Espainiako Konstituzioa» «Konstituzio Espainiako» bihurtu bait digute, barruan dakarren euskara gaiztorako presta gaitzen edo. Diferentzia hauez kanpo, astakeria berdin berdinak esaten dira bi testuetan.

Erdal testuaren itzulpena ote den ere zalantzan jartzekoa da. Zuzen zuzenean erdararen kontrakoa —antitetikoa— adierazten duen dozenaka pasarte aurkitu bait dugu. Honela 8. artikulua 2. atalean, erakunde militarren lege organikoak «*aurreko Konstituzio*ko funtsen arabera» eratuko dituela agintzen duenean. Edo 102. artikulua 2. atalean. Ganbaren akordioez ari dela, «Konstituzioak ezartzen dituen gehiengo bereziaren *kaltetan*» izan-